

## txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

## Hauteskundeak etzi?

Hauteskundeak dira etzi Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herri askotan. Boz batzuk, udal ordezkarien hautatzeko izanen dira. Besteak, kantonamenduetakoak izendatzeko. Datozen sei urteetarako hautagaiak aukeratu dituzte igandean. Egunak baduela, alegia, bere garrantzia. Euskal departamenduaren eskaera egiten duten hautagaien aurrera begirako erronka, adibidez, ez da makala. Eta asteak dira jada hauteskunde horien berri komunikabideetan izaten ari garena, baina ezin esan Eus-



ARMANDO FRANCA

Hauteskundeak izanen dira igandean Iparraldean.

kal Telebistako albistegiek alde horretatik ekarpen handiegirik egin digutenik. Eztabaida, mahai-inguru eta zerrenda aurkezpen eza, eta hain gutxieneko izatearen poderioz ia deusean geratu den kanpainaren jarraipena... Ez dirudi Ipar Euskal Herria deitzen diogun eremuko euskaldunen artean ETB albiste iturri erreferentziala bilakatu denik oraingo hauteskundearen bitartez. Dirudienez, hauteskunde horiek Euskal Telebistatik bertatik hainbeste aipatzen zaigun euskal herritar guztion barne mugak ulertzeko behararekin ez dute zerikusirik. Oraingo behintzat, emanaldi berezirik ez digute iragarri iganderako. Neronek, pozik ikusiko nuke.

**ETB1.** Jokin Oregi: «Datozen lau igandeetan *Hasiberriak* abian saioak castingetako prozesu guztia erakutsiko du»



PABLO S. QUIZA

Jende ezagun ugari bildu zen atzo iluntzean Donostiako Kabutzia dantza aretoan 'Hasiberriak' telesaileko aurkezpen jaialdian.

**hasiberriak**

**Ekoiztetxea:** Pausoka.  
**Ekoizle exekutiboa:** Iñaki Eizmendi.  
**Zuzendaria:** Jabi Garcia de Bikuña.  
**Gidoilari koordinatzaileak:** Maite Luque eta Jokin Oregi.  
**Ekoizketa burua:** Itziar Zeberio.  
**Elkarrizketen koordinatzailea:** Harkaitz Cano.  
**Aktore zuzendaria:** Arantxa Gurmendi.  
**Aktoreak:** Aintzane Gamiz, Manex Rekarte, Gorka Igartua, Oihana Maritorea, Judit Mariezkurrena, Mikel Antero, Koldo Arrillaga, Edurne Azuara, Saioa Garcia, eta Naiara Etxeberria.

laguntzarekin. Bigarren saioan, egun horretan eginiko lana ikusiko da; web orrian aurkeztu ziren hamar hautagaiak izendatu arteko nondik norakoak.

Aktoreek telesaileko zenbait egoeretan nola moldatzen ziren ere erakutsi behar izan zuten, eta horren arabera hartu zuten antolatzailek azken erabakia (hirugarren saioak emango du horren berri). [www.hasiberriak.com](http://www.hasiberriak.com) gunean zortzi mila bisita jaso ziren bi hilabeteetan.

Apirilaren 1ean, estreinaldiko bezperan, emango dutena ere azaldu digu Jokin Oregik. «Benetako grabazioekin hasi baino lehen ale zeroekin ibili ginen. Eta entsegu horietako esperientzia azalduko dugu. Kamera, errealizadore eta zuzendarien lana ere agertuko da bertan».

Telesaileko arduradunek *Goenkaleko* aktoreen mailara iritsiko ziren aktoreak bilatu dituzte. 75 ataletako ekoizpen batean lan egiteko prestatuta zeudenak. Horri buruz Jokin Oregik esan du gazteek oso maila ona eman dutela: «jendearen irrika eta grina, ausardia, kementa eta lan egiteko gogoia argi geratu dira». Errodajea izan ginen eta horrela zela ziurta dezakegu.

## Lehenengo agerraldi publikoa

Martxoaren 19tik apirilaren 2ra atzeratu dute 'Hasiberriak' telesailaren estreinaldia

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Bi mila gazteren artean bost aktore berri aukeratu dituzte *Hasiberriak* telesailerako eta atzo ilunabarrean aurkeztu zituzten publikoki Donostiako Kabutzia dantza aretoan. ETBko aurpegi ezagunak eta beste hainbat pertsona famatu bildu ziren aurkezpen festan, eta telesailean arituko den musika taldeak alaitu zuen giroa.

Telesaia martxoaren 19rako iragarri bazuten ere, apirilaren 2an estreinatuko dute. Bitartean, datozen lau igandeetan *Hasiberriak* abian saioa eskainiko dute ETB1ean. *Docu-soap* itxurako programa horretan castingerako deialdia egin zenetik aurrera eman diren pauso guztiak

erakutsiko dira. *Hasiberriak* abian saioko zuzendari Jokin Oregik EGUNKARIARI azaldu dio zer ikusiko dugun igande honetatik aurrera: «Makro casting erraldoiak antolatu genituen Bilbon eta Donostian bost protagonisten bila ari ginelako. Prozesu guztia azalduko dugu *docu-soap* honetan. Pausoz pauso, urratsez urrats, jendea kanpoan nola gelditzen zen erakutsiko dugu». Igande honetako saioan lehen galbahea nola egin zen erakutsiko da. Bi mila gazteren artean 100 aukeratzeko egin ziren probak, eta horietatik behin-behineko 30 aktore aukeratzeko egin zen bidea. Hurrengo probak Miramongo estudioetan egin ziren, *Goenkale*-ko bost protagonista gazteen



ETB

Naiara Etxeberria, Koldo Balentziaga, Edurne Azuara, Mikel Antero eta Saioa Garcia, *Hasiberriak* telesailerako aukeratutako aktoreak.